

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

- Gure produktua ez da behin eta berriz erosten den produktua. Behin gure bizikleta estatiko bat izanda ez duzu beste bat erosteko beharrik, dagoeneko beharra asetzen duelako. Hala ere, gure kontsumitzaileei ahalik eta tratu hobereena emango diegu, arazoak badituzte 24 orduko asistentzia emanda, seguru on bat eskainita eta froga periodo bat emanaz bueltatu nahiko balute aukera izan dezaten. Modu honetan gure produktuaz ongi hitz egingo dute eta beste norbaiti gomendatzea posible da.

Bezeroen ongizatea da gure lehentasuna, horregatik urtean behin hainbat bezeroekin elkartu eta hobekuntza proposamenak entzuteko irekiak egongo gara, ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko. Hara ere, gure bezeroarentzako arreta 24 orduz egongo da erabilgarri.

Erosketari dagokionez bi eratakoa izan daiteke; online edo dendan bertan. Era batera edo bestera bezeroaren interesen arabera modu batean edo bestean ordaintzeko aukera izango dute. Epeak oso malguak dira eta bakoitzaren beharretara moldatzen dira.